


KOLDORIKA

TA

JON

8



M-77624
F-81559

AV
36188

M.-Egaña'tar'-E.


KOLDOBIKA TA JON

(GIPUZKERAZ)

UMIENTZAKO

-IPUÿAK-

Bilbao'ko «Euzko-Gastedija»'k argitaldubak



BILBAO-1914'g

Grijelmo'ren Alargun-Semien irarkolea.—Arbolancha. 1



U A R T X U A K

Umiak ipui au irakuñi edo *leiduiian*, érezago uleñtu dezatentzat, jañtzen ditugu emen, lenbizi, izki edo *letra* atzalgariyak, eta ufengo, itz edo *berba* gitxi ezaunak. Ona:

Izki edo letra atzalgariyak

tx da érderazko *ch* bezela: *etxia*=*echia*.

ř » *rr* » : *sagařa*=*sagarra*.


l » *ll* » : *olua*=*ollua*.

Itz edo berba atzalgariyak

abeři, jayoteři
sendi, pameliya
ikastola, eskola
ele, izkuntza, berbeta
txiro, pobre
ludi, mundi, luř
iztegi, itz-liburu
idazti, liburu
ikuřitz, ikufi-itza

azkatasun, libertade
anei miła
ikastetxe, eskola
irakasle, maisu
abertzale. jayoteři-zale
deun, santu
atzipe, engañu
sendalari, mediku





KOLDOBIKA TA JON

Garaiko-goyena taŕ Toma zan euzkel-
dun aberatza, ez gaiztua, bañan maitasun
gitxikua bere aberi edeŕarentzat. Bera ta
bere sendiya goratubak ikustia zan aren
betiko ametsa, naiz ta oŕetarako saŕitan
egin biaŕ itxura-gabeko gauzeak.

Bi semetxo zeuzkan: Koldobika ta Jon,
amabi urtetik berakuak biyak; gustiz
maitiak zitun.

Neguba igarotzen zuten Madrid'en, eta
udean Euzkadi'ra biuŕtzen ziran, Toma,
emengo eŕi txiki baten, etxe edeŕ baten
jabe zalako.

Koldobika'k, aitearen antzera, aundiz-

ki-usayak zitun; bañan Jon, euzkeldun ona bezela, toles-gabia ta biyotz aundikua zan.

Onela, gastetxuak izan-añen, aiteak bialtzen zitun neguban ikastola aundiye-tara, zegokiyeñ bezela jakitunak atera zitezen.

Batez-ere alegintzen zan eliak irakas-ten; ongi eñderaz, baita pantzeraz, ta en-galanderaz, bañan, euzkeldun jatorizkuak izan-añen, beren ele edeña, euzkerarik ez.

Dena egiten zan gure aberatzaren etxian eñdel-usai aundiyaikin, iduritzen zitzayolako bere mañako sendiyak, bera-tu egiten zirala euzkeldun izatiakin. Of-engatik bere semetxuak ez zuten ezagu-tzen bere abeñi benetakua; abek ere, bes-te askoren antzera erdel-eñiya maitatzen zuten berentzat. Urteoro bezela, uda ba-ten, beren Euzkadi-ko etxera etoñi ziran; uri aundiye-tako zarataetatik alde-egiñik, emen atsedenez udatia igarotzeko ustiaz. Oi-dan bezela eñi txikiyetañ, Toma zeguan lekuban ere, aberatzak oso banakeak zir-

an, eta biartsuak ibiltzen ziran enparantzara ta kalien jabe.

Zeuden aberatz-apurak, beñiz, Toma'k bere etxian biltzen zituban; eta bere barantzara edeñ, ta loretegi apañetan, ayen ume txuak, Koldobika ta Jon'akin jolasten ziran. Lagunak alde-eginda, beren etxian anai biyak bakarik geratzen ziradenian, kalia jolasten ziran mutiltxo txiruai, lorategiko burni-artetik begira egon oi-ziran. Beste batzuben beñiz, kanpokuak burniyetara urbildurik, baruban zebiltzan Koldobika ta Jon'i begira, luzaruan egon oi-ziran aua zabalik.

Onela zeuden baten, Jontxo, beti biyotz maitariyak, esan ziyon bere anayari:

—Koldobika; ¿Saftuko ditugu mutiltxo oriyek geuregana?

—Ara gauza, goguak eman dizuna... —erantzun ziyon onek— ¿mutiltxo arlote oriyek ekañi nai-dituzu guregana?...

Geratu zan ixilik Jon, bere anayari aditzian, bañan egoki zetoñkiyonian berakin itz-egiteko ustiaz.

Andik egun batzubetara, ikusirik Jon'ak etxetik mutiltxuak, sañitan bezela, kanpotik beren baratzerara begira zeudela, jetxi zan iñork ikusi-gabe, uñbildubaz ayek zeuden aldera. Mutiltxuak, ikusirik Jon uñbiltzen zala euretara poliki-poliki alde-egiten zuten burni-ezi-ondotik. Jon'ak, ori ikusirik didaf-egiten ziyen bere eñderazko elez:

—Ez ezazute alde-egin, jolastu nai-nuke zubekin eta. Atozte onera uñbilera ta denok elkañekin jolastuko gera.

Jontxo'k ori esan-añen, kaleko mutiltxuak orduban ta uñutirago alde-egiten zuten. Beriala oroitu zan Jon, alde-egin-go zutela beregandik, uleñtzen ez zutelako, berak esaten zubana; ta oñegatik, ziara naigabetuba geratu zan.

Uñenagoko egunian beste onenbeste gertatzen zan; Jon'ak burniyaren onduan, kaleko mutilak ikusteko, uñbiltzen zan euretara, ta abek bañuko mutiltxua berengana zijuala ikusirik uñutirago juan oi-ziran.

Egun baten, beren lagunakin, Koldobika ta Jon oi bezela baratzan zebiltzala jolasan, bestetako eran, kaleko mutiltxuak burni-ondora bafukuak ikusteko ufbildu ziran. Ako ez al-zitun Jontxo'k ikusi; jostalen bat aíturik, poliki-poliki, bere anai ta lagunak somatu-gabe, ufbildu zan mutiletara jostalena ezkeñiyaz. Abek ordu-ban ere alde-egiten zuten, nunbait ufbiltzen ziralako, aseñien beldur izaten ziran; bañan, oregatik Jontxo'k eskeñi ta eskeñi egiten ziyela ikusirik, pizka bat poztu ziran, batez-ere joztalua burni-artetik eurentzat eman ziyenian. Geroztik, gustiz lagun egin ziran elkarékin; bata, baratzaren bafutik, eta bestiak kanpotik, gustiz ongi atonduten ziran; bañan alkarékin izketan ez ziran uleítzen, eta mutubenak egin bial-izaten zituzten safitan.

Jontxo adimen argikua zalako ta orobat jakin-nai aundikua, ayen ele edefa, euzkerea aditzen ipozik egon oi-zan; eta bera ikasteko gogo aundiya zeukan.

Bitartian Koldobika'k, ezin eramán iza-

ten zuban, bere anaya mutiltxo arlote ayekin ibiltzia, ta bein baño geyagotan esan oi-ziyon:

—Ez dakit mutil oyekin zer dala-ta ibiltzen aizen: ¡ba'eki zein gaizki ematen diken ire malako bat ofetara beratziak! Goguak ematen zirak zer egiten dekan aiteari esatia.

Erea dekan guziyan juaten aiz euretara; izketan ere ez dakiten arlote ta ez-jakin oyetara.

—¿Izketan ez dakitela?... ¿ez-jakiñak dirala?... ¿Bai al-dakik ik euren euzkerea?

--¡Ez ta nai ere jakin! ¡Juari uñutira ele ofekin...!

—Ez zekiat uñutirako baliyo-dun banan, bazekiat ele ori baño edeñagorik ez dala ludiyan; eta eurari aditzian, gelditzen nauk, bera ikasteko naikida aundi-yaz.

Onela bukatu oi-ziran saritan anai biyen arteko gora-bereak; eta Koldobika bere aundikeri ta edeltzalekeriyaz auñeratzen zala, Jon bere kaleko laguntxuai



Toma'k... deitu zuban Jon bere aufera juateko.

eskeñak, gero ta euzkaltzaliago egiten zan.

Azkaña zalako, euzkerazko itzak ikasten asi zan; eta onela, geruago ta obeto bere laguntxuakin moldatubaz zijuan.

Uda-azkenian, ostera Madrid'era biurtzeko gertatu ziran; eta Jon bere laguntxuak laga-biañak asko naigabetzen zuban; bañan ikastolara juatia biañekua zubala ongi zekiyalako, ixil-ixilik bera ere gertatu zan.

Aguñtu zitun bere laguntxuak ufengo udar arte; gero aitea ta Koldobika'kin, aguñtu zitun ere bere lagun aberatzak; eta alde-egin zuten Euzkadi'tik, kanpuan neguba igarotzeko.

Bein Madrid'an ziradenian, beti bezela, ikastolara juaten asi ziran anai biyak; eta egiten zituzten auferapen aundiyak.

Etxian zeukaten mofoyetarik bat, euzkeldun abertzale zintzua zan, eta Jon'akin bañiketa aundiyak edukitzen asi zan; eta, poliki-poliki, mofoya asi zan Jon'i euzkerea irakasten. Eman ziyon euzkel

-iztegiya, ta beste eliak ikasteko biala-kuak diran idaztiyak, eta Jontxo argiyak, berialaxe asi zan euzkerean auferatzen, eta mofoyaren irakatsi edefari eskañak, bere aberiya ezagutzen, eta «Jaungoikua ta Aberiya» diñuan ikufitz edefari maitasuna arturik, bertako ekandu ta oitureak maitatzen.

Koldobika beriz, Jon bezela ikasten azkaña bai-zan, bañan ez zekafen onen antzik ezertan ere; aren oitura ta jolas guziyak, erdelkeri utzak ziran; zezenketa-zalia, ezpata-jokura itxuba; joztirudi zikiñetara juaten zalia, ta erderazko idazti gaiztuak irakufiten amofatuba.

Egun baten, askotan bezela, Toma'ren erdel-lagunak, afen etxian bildu ziran; eta neguban ofelako aberatzak edukitzen dituzten jolas moduak eduki-ondoren, dei-egin ziyeten Toma'ren semiai, azkañ zararata zutenezkero, zerbait galderak egiteko eurari.

Batek galdetu ziyon Jon'i.

—Jon: ¿zer gauza da zuk geyen maite-dezuna?

Ta Jon'ak erantzun zion:

—Lenen Jaungoikua, ta nere Aberi Euzkadi uřena.

—Zure aberi txikiya esan naiko dezugaldetu ziyoten.

—Ez; nere aberi bakařa.

Bai-zirudin Jon'ak au esatian, birao ikaragařiya bota zubala; aditzen zeuden guziyak geratu ziran izutubak, batez-ere bere aiteak ziara suak ařturik, esan zion Jon'i:

—¿Zer esaten ari zera?

—Euzkadi nere aberi bakařa dala.

—Toma --esan zion bere lagunetarik batek—zure semia azkatasun-zalietakua da; aberiyaren etsaya.

Ta Toma'k oso berotuba, ařtu zuban besotik Jon gizajua, ta atera zuban gela artatik.


Gero biuřtu zan bere lagunetara, ziara aseřatuba, esanaz, ark argitalduko zubala zein zan, bere semiari ořelako gau-

zeak irakasten zizkiyona. Denak eduki-
-ondoren jardun-aldi gogoña euzko-aber-
tzalien kaltez, aguritu zuten gure aber-
atza ta jun ziran.

Toma'k, bakarik geratu zanerako, dei-
tu zuban Jon bere aurera juateko; gauza
kaltegarri ayek nork irakatsi zizkiyon
azaltzeko. Urak egin zizkiyon mutiltxuari
asefe aundiyak, eta anei aldiz galdetu zi-
yon norgandik zitun alako irakatsiyak.
Jon ixil-ixilik ezer erantzun-gaberik, ze-
guan ongi zekiyalako esanezkero, bere
mofoi irakasliari kaltiak etofiko zitzaiz-
kiyola.

—Emendik aurera -aiteak esan ziyon—
udarean gerekin ez zera euzko-efira juan-
go; lagako zaitut bakarrik ikastetxe ba-
ten, Koldobika ta ni udarea kanpuan
igarota, bertora buirtu-artian; jeta zai-
gero! aurerantzian ofelako gauzarik esa-
ten dezun nere ta inoren aurian.

Esan eta egin; udarea eldu zanian aber-
atz aruak, Jon ez zuban eraman berekin;



...atera zuten bertatik Koldobika erdi ilik.

laga zuban ikastetxe baten irakasle erdeldun amofatubakin; bañan, alpeñik, Jontxo'k beti jaraitzen zuban beriakin.

Auferagoko urtietan ere, Toma'k orixen egiten zuban; Jon geruago ta euzkel-dunago ta beragatik abeftzaliago jaraitzen zupalako, naiz negu guziya auferapen aundiyakin ikastolean igaro, lagatzen zuban bertan, zioñez ain euzkeltzalia zalako.

Toma itsubak naiz ta ikusi Jon, bere ikastietan azkara, oituraetan garbiya, ta gustizko seme ona zala, euzkeltzaletu zalako, galdu ziyon lenago Jon'entzat zeukan maitasuna.

Koldobika, beriz, ez zan euzko-gauzaetan sartzen, edo obeto esateko, Euzkadi, ren kaltez al-zubana egiten zuban; bañan poliki-poliki, galduten asi zan

Ori-ta-be, bere erdel-zalekerijari eskarak, aiteak artu ziyon maitasun biziya. ta ongi zegon beretzat Koldobika'k egiten zuban guziya; ta gaizki beti, Jon'en egiñenak, naiz ta ongi egiñak izan.

Onela igaro ziran urte batzubek, eta anai biyak mutil bikañak izatera eldu ziran. Orduban Toma bere eruba uleitzen ari zan. Koldobika, ainbeste idazti gaizto irakufi, ainbeste dantza zikiñetan ibili, betiko zezenketa galgari ta beste onelako jolas galdubetan izan oi-zan aitearen baimenakin, eta azkenerako mutil galduba egiñik geratu zan. Bere ikastiak bukatu nai ez, ta, arapatzen zuban diru guziya, joko ta beste ekandu gaiztoetan galdubaz, saritan gabak kanpuan igaroren zan, bere izatia erukari egiñaz.

Jon'ak beriz, bere ikastiak bukatu zitun ederki, baita ere sariyak ugari irabazi, ta gastetan lez aberetzale zintzua izateko naikidakin, Jaungoikua'ren bildur deunaz bizi-izaten ikasi zabalako, gustiz garbiya zan bere oitura ta jolasetan, eta ez ziyon aiteari naigaberik ematen ezertan.

Aiteak ikusten zuban seme biyen artian zegon aldia; Koldobika, galduba, berak, bere erdeltzalekeriyan aben oituretan azi zabalako, ta Jon on-ona, bere euzkeltzale-

tasunan iraun zubalako; bañan, alaz guziyaz ere, ez zuban nai bururik makuftu, ta bere atziperik aitoftu.

Goiz baten Toma ta Jon oetik jaikitzen zijuaz, Koldobika gau artan etxeratu-gabe zalako, gelditu zan zaldiburdi, bat etxe-aufian, eta lau gizonen artian atera zuten bertatik Koldobika erdi-ilik; gau artan, sartan bezela, bere lagun gaiztuakin zebilela sekulako ibilera galgarrietan, aietako batekin asefaturik, eta euren *honra* garbitzeko aitzakiyakin, jokatatu zuban espataz goizaldian ixilik bere etsayakin; eta onek, iya ilda laga zuban, ezpatakadakin sayetzian, jo zuban-eta, ta onela negafezko itxuraz bere lagunak zekafen.


Esan ere ezin leike zenbaterafoko naigabia artu zuban Toma'k jakitian bere semiari gertatzen zitzayona; batez-ere orduban bere efuba aitoftzen zuban. Orduban Toma konturatu zan bera atzipetuba beti bizi-izan zala, debekatubaz Jon'i Jaungoiko ta bere Abefiyaganako zaletasuna.


Alpeñik izan ziran sendalari ta sendakayak Koldokika'rentzat.


Zauriya ilkoña zeukalako, eñukañi ura beriala il zan.

Auñerantzian Toma'k bere seme Jon, gustiz maite-izan zuban; eta beronekin, euzkeldun ikuñitza onerazten bizi-izan zan.

Euzko-mutiltxuak: Begiratu beti,
Jon, ain euzkeldun zintzuari;
bere antzera iraun beti,
jañaitubaz euzkeldun ikuñitz edeñari
Jaungoikua ta Aberiya bada,
biañ bezela onerazten ditun gastia,
izango da ludiyan zorioneko;
ta berñdin gero Zeruban betiko.







ATV

3618